



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO



Dokumentu mota / Tipo de documento: LEGE PROPOSAMENA – PROPOSICIÓN DE LEY
Nori zuzendua / Dirigido a: EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIA
Proposatzailea / Proponente: ZULUAGA, IRUNE (EA-NV)
 ANDUEZA, ENEKO (ES-SV)
Talde parlamentarioa / Grupo parlamentario EA-NV/ES-SV
Data / Fecha 2023.11.03

Espediente zb / Nº de expediente
Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa

Proposición de Ley de modificación de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek honako lege-proposamen hau aurkeztu dute, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzeko, IRAKURKETA BAKARREKO PROZEDURAREN BIDEZ OSOKO BILKURAN URGENTZIAZ EZTABAIDATZEKO, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 103. eta 163. artikuluen babesean.

ADIERAZTEN DUTE

1.- Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak 2019ko maiatzaren 9an onartu zuen 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, EUSKAL KULTURA ONDAREARI buruzkoa. Legē honek hainbat artikuluru ditu, eta horiek aldatu egin behar dira, Eusko Jaurlaritzaren eta EAEko udalen eskumenen artean nahasmendurik ez sortzeko eta babes-mailak argitzeko.


2.- Bestalde, beharrezkoa da legea aldatzea, baldintza jakin batzuetan energia-iturri berriztagarriak erabili ahal izateko.

Los Grupos Parlamentarios abajo firmantes presentan la siguiente Proposición de Ley de modificación de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco para su debate URGENTE en PLENO por el PROCEDIMIENTO DE LECTURA ÚNICA, al amparo de los artículos 103 y 163 del Reglamento del Parlamento Vasco.

MANIFIESTAN

1.- Que el Pleno del Parlamento Vasco aprobó el 9 de mayo de 2019 la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de PATRIMONIO CULTURAL VASCO. Esta ley presenta varios artículos que resulta necesario modificar para evitar confusiones competenciales entre las correspondientes al Gobierno vasco y a los ayuntamientos vascos y clarificar los niveles de protección.

2.- Por otra parte, se hace necesario modificar la ley para permitir en determinadas condiciones, la utilización de fuentes de energía renovables.





3.- Horregatik guztiagatik, Ganberaren Erregelamenduaren 103. artikuluan ezarritako presazko prozeduraren bidez izapidetzea komeni dela dirudi, egoera ahalik eta lasterren leheneratzeko.

4.- Izenpetzen duten talde-parlamentarioek proposatzen dute, halaber, lege-proposamen hori Legebiltzarreko Erregelamenduaren 163. artikulua arabera izapidetzea, gaiaren izaera eta formulazioaren sinpletasuna kontuan hartuta, bere irakurketatik egiazta daitekeenez.

JUSTIFIKAZIOA

1.- EUSKAL KULTURA ONDAREARI buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak, 8. artikuluan, hiru babes-maila bereizten zituen: babes berezia, ertaina ta oinarrikoa. Azken hori udalek onartutako udal-plangintzako katalogoen bidez zehazten zen. Xedapen horrek, ordea, ez zuen zehazten zer irizpideren arabera irits zitekeen tokiko balioa duen elementu bat oinarriko babes kategoriara. Udak askok Eusko Jaurlaritzara jo dute definizio zehatzagoa eskatzeko, hirigintza-kasuistika hori kultura-ondarearekin modu arin eta bateragarrian kudeatu ahal izateko. Urte hauetako esperientziaren ondorioz, beraz, artikuluen aldaketa proposatu da, kultura-ondasun higiezin bat oinarriko babes-mailan sartzeko irizpideak adierazita (zaharberitze zientifikoa edo kontserbatzailea merezi izatea).

Legeak, halaber, ez zuen aldi iragankorrik zehazten udal-katalogoak egoera berrira egokitzeko, eta zehaztugabetasun-egoerak


3.- Que, por todo ello, parece conveniente el trámite mediante el procedimiento de urgencia establecido en el artículo 103 del Reglamento de la Cámara a fin de revertir la situación en el plazo de tiempo más breve posible.


4.- los Grupos Parlamentarios firmantes proponen a su vez que dicha Proposición de ley se tramite de conformidad con el artículo 163 del Reglamento de la Cámara, a la vista de la naturaleza del asunto, así como de la simplicidad en la formulación, como se puede comprobar de su propia lectura

JUSTIFICACIÓN

1.- La Ley 6/2019, de 9 de mayo, de PATRIMONIO CULTURAL VASCO distinguió en su artículo 8 tres niveles de protección: la protección especial, la media y la básica. Esta última era determinada a través de los catálogos de planeamiento municipal aprobados por los ayuntamientos. Dicha disposición, sin embargo, no concretaba los criterios por los que un elemento de valor local podía alcanzar la categoría de protección básica. Numerosos ayuntamientos se han dirigido al Gobierno Vasco solicitando una definición más concreta para poder gestionar de forma ágil y compatible con el patrimonio cultural esa casuística urbanística. La experiencia de estos años, por tanto, ha conducido a proponer una modificación en el articulado, indicando los criterios (ser merecedor de restauración científica o conservadora) para que un bien cultural inmueble sea incluido en el nivel de protección básica.

La ley tampoco determinaba un periodo de tiempo transitorio para que los catálogos municipales se adaptasen a la nueva situación





sortzen zituen, kategoria horretan bildutako ondasunak bizigarritasuna bermatzeko behar ziren obra oinarritzkoenen subjektu izatea bultzatzen ez zutenak.

Bi kasu horietan, EUDELen barruan adostasun zabala dago hirigintzari eta kultura-ondareari eragiten dien gai horri erantzun egokia eta presazkoa eman behar zaiola.

2.- Klima-aldaketa, energia-iturri fosilen agortzea eta horiek ekonomia globalean duten eragina, denboran zehar jasanezinak diren kostuen igoerekin, gero eta agerikoagoak eta nabarmenagoak dira planeta osoan. Gogoratu behar da NBEk berak eskatu zuela larrialdi klimatikoaren deklarazioa mundu osoan, CO2 emisioak erabat jaitsi arte. Trantsizio energetikoa eta ekologikoa ezinbestekoa da agertoki horretan; izan ere, isuriak murrizteko estrategiak gehitu behar dira, dagoeneko martxan dagoen klima-aldaketa arinduko dutenak, bai eta egokitze-estrategiak ere, inpaktuak minimizatzeko eta giza sistemen eta sistema ekologikoen erresilientzia handitzeko, eta garapen-ekimenak eta, bereziki, energia berriztagarrien ezarpena errazteko.


Testuinguru horretan, energia-iturri berriztagarriak alternatiba iraunkor erreala gisa gero eta gehiago erabiltzen direnez, beharrezkoa da Euskal Kultura Ondarearen Legea aldatzea, iturri horiek ondareko ondasun higiezinetan sartzeko, bereziki bizitegi-izaerakoetan, energia-eraginkortasuna lortzeko, ondasun horien ondare-balioekiko errespetuarekin orekatuta, eta higiezin horiek erabiltzeari uko egitea saihesteko, energia eskuratzeko kostu handiagoa dagoelako. Baina, era berean, itenbide integratzaileak bilatu behar dira,

y provocaba situaciones de indeterminación que no favorecían que los bienes englobados en dicha categoría pudiesen ser sujetos de las obras más básicas necesarias para asegurar su habitabilidad.

Existe, en ambos supuestos, un amplio consenso en el seno de EUDEL sobre la conveniencia de dar una respuesta adecuada y urgente a esta cuestión que atañe tanto al urbanismo como al patrimonio cultural.

2.- El cambio climático, el agotamiento de las fuentes de energía fósiles y sus efectos en la economía global, con incrementos de costes insostenibles en el tiempo, son cada día más visibles y patentes en todo el planeta. Cabe recordar que la propia ONU solicitó la declaración de la emergencia climática en todo el mundo hasta alcanzar un descenso radical de las emisiones de CO2. La transición energética y ecológica resulta imprescindible en este escenario, en el que deben sumarse estrategias de reducción de emisiones, que mitiguen el cambio climático ya en marcha, estrategias de adaptación para minimizar sus impactos y aumentar la resiliencia de los sistemas humanos y ecológicos así como facilitar iniciativas de desarrollo y en especial de implantación de energías renovables.

En este contexto, el cada vez mayor uso de fuentes de energía renovables como alternativa sostenible real, hace necesaria la modificación de la Ley del Patrimonio Cultural Vasco con el objeto de incorporar estas fuentes en los bienes inmuebles del patrimonio, en especial en los de carácter residencial, para lograr la eficiencia energética en equilibrio con el respeto a los valores patrimoniales de estos bienes y evitar un efecto rechazo hacia la utilización de dichos inmuebles por el mayor coste de acceso a la energía. Pero también hay que buscar soluciones integradoras que





ondasun horien eta haien inguruneen gainean sor dezaketen eragina minimizatzen dutenak.

TESTU ARTIKULATUA

1. ARTIKULUA

Aldatu egiten da Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 8. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

8. artikulua.– Babes-mailak.

1. Euskal kultura-ondarea osatzen duten ondasuna, dagokien babes-mailaren arabera, honelakoak izango dira:

a) Babes berezia duten kultura-ondasunak: babes berezia jasoko dute lege honen 2.1 artikuluko kultura-balioetako bat duten EAEko kultura-ondasun higiezin, higigarri eta immaterial nabarmenenek.

b) Babes ertaina duten kultura-ondasunak: babes ertaina jasoko dute lege honen 2.1 artikuluko kultura-balioetako bat duten EAEko kultura-ondasun higiezin eta higigarri garrantzitsuek.

c) Oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak: oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak izango dira lege honen 2.1 artikuluan aipatutako kultura-balioetakoren bat duten eta udalek une bakoitzean indarrean dauden udal-hirigintza-plangintzako katalogoetan hala zehazten dituzten kultura-intereseko higiezinak, zaharberritze zientifikoko edo zaharberritze

minimizan el impacto que puedan generar sobre esos bienes y sus entornos.

TEXTO ARTICULADO

ARTÍCULO 1.-

Se modifica el artículo 8 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, con la siguiente redacción:


Artículo 8.- Niveles de protección


1. Los bienes que componen el patrimonio cultural vasco se clasificarán en alguno de los siguientes niveles de protección:

a) Bienes culturales de protección especial: se declararán bienes culturales de protección especial aquellos inmuebles, muebles e inmateriales más sobresalientes de la CAPV que reúnan alguno de los valores culturales citados en el artículo 2.1 de esta ley.

b) Bienes culturales de protección media: se declararán bienes culturales de protección media aquellos inmuebles y muebles relevantes de la CAPV que reúnan alguno de los valores culturales citados en el artículo 2.1 de esta ley.

c) Bienes culturales de protección básica: serán bienes culturales de protección básica aquellos inmuebles de interés cultural que reúnan alguno de los valores culturales citados en el artículo 2.1 de esta ley y que así se determinen por los respectivos ayuntamientos en los catálogos en cada momento vigentes de planeamiento urbanístico municipal por ser merecedores de actuaciones de restauración científica o de restauración conservadora.





kontserbatzaileko jarduerak merezi dituztelako.

Nolanahi ere, oinarritzko babeseko kultura-ondasunen izaera galduko dute babes berezi eta ertainekotzat jo diren edo jotzen diren eta, beraz, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta dauden kultura-ondasunek.

2. Aurreko sailkapena udal-babeseko kultura-ondasunen sailkapenarekin osatuko da. Azken horiek hirigintza-plangintzan eta udal-katalogoetan zehaztuko dira, eta tresna horietan ezarritako babes-araubidearen mende egongo dira.

3. Bizirik dagoen egile baten kultura-ondasunaren babesa salbuespentzat joko da, eta kasu horretan titularraren berariazko baimena beharko da.

2. ARTIKULUA

Aldatu egiten da Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 21. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

21. artikulua.- Oinarritzko babesa duten kultura-ondasunak deklaratzeko prozedura.

1.- Ondasun higiezin bat oinarritzko babesa duen kultura-ondasun deklaratzeko, babes-maila hori esleitu besterik ez da egin behar udaleko hirigintza-plangintzak uanean-uean indarrean dituen katalogoetan, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta dauden ondasunen kasuan izan ezik.

En todo caso, perderán la condición de bienes culturales de protección básica aquellos que hayan sido o sean declarados de protección especial y media y, por tanto, incluidos en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco.

2. La clasificación anterior se complementará con la de los bienes culturales de protección municipal. Estos últimos se determinarán en el planeamiento urbanístico y en los catálogos municipales y estarán sujetos al régimen de protección establecido en dichos instrumentos.


3. La protección de un bien cultural de un autor o autora vivo tendrá carácter excepcional y requerirá la autorización expresa de su titular.


ARTÍCULO 2.-

Se modifica el artículo 21 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, con la siguiente redacción:

Artículo 21. Procedimiento de declaración de los bienes culturales de protección básica.

1.- La declaración de un bien inmueble como bien cultural de protección básica se produce por la mera asignación de dicho nivel de protección en los catálogos en cada momento vigentes del planeamiento urbanístico municipal, salvo en el caso de aquellos bienes que estén incluidos en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco.





2.- Horretarako, udaleko hirigintza-plangintzaren katalogoetan babes-maila espezifiko bat jaso beharko da, "6/2019 Legearen ondorioetarako, oinarrizko babesaren duten kultura-ondasunak" izenekoak, eta hor sartuko dira lege honen 8.1 c) artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten kultura-intereseko ondasun higiezinak.

3.- Udalek Kultura Ondarearen EAEko Zentroari jakinarazi beharko diote oinarrizko babesaren duten kultura-ondasun higiezin berrien deklarazioa.

4. Deklarazioa Oinarrizko Babesaren duten Kultura Ondasunen EAEko Erregistroan inskribatuko da. Erregistro horretan inskribatutako ondasunek babes berezia edo babes ertaina duten kultura-ondasun deklaratuak izateko behar besteko balio badute, lege honetan azken horientzat aurreikusitako izapideak egin beharko dira. Kasu horietan, 15. artikuluan ezarritako babes-araubidea aplikatu beharko zaie, aldi baterako.

3. ARTIKULUA

Aldatu egiten da Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 22. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

22. artikulua.- Oinarrizko babesaren duten kultura-ondasunen deklarazioa azkentzea.

Oinarrizko babesaren duen kultura-ondasun baten deklarazioa indarririk gabe utzi ahal izango da, osorik edo partez, deklarazioa egiteko erabili diren izapide berberak erabiliz.

2.- A dicho efecto, en los catálogos del planeamiento urbanístico municipal deberá contemplarse un nivel específico de protección, denominado "bienes culturales de protección básica a los efectos de la Ley 6/2019", en el que se incluirán aquellos bienes inmuebles de interés cultural que reúnan las condiciones previstas en el artículo 8.1 c). de esta ley.

3.- Los ayuntamientos deberán comunicar al Centro de la CAPV de Patrimonio Cultural la declaración de nuevos bienes culturales inmuebles de protección básica.


4. La declaración se inscribirá en el Registro de la CAPV de Bienes Culturales de Protección Básica. En el supuesto de que los bienes inscritos en dicho registro cuenten con valores culturales suficientes para ser declarados bienes culturales de protección especial o protección media, se requerirá la tramitación prevista en esta ley para cada uno de ellos. En estos casos, les será de aplicación transitoria el régimen de protección establecido en el artículo 15.

ARTÍCULO 3.-

Se modifica el artículo 22 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, con la siguiente redacción:

Artículo 22- Extinción de la declaración como bienes culturales de protección básica.

La declaración de un elemento como bien cultural de protección básica sólo podrá ser dejada sin efecto, de forma total o parcial, por los mismos trámites seguidos para su declaración.





4. ARTIKULUA

Aldatu egiten da Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 25. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

25. artikulua.- Kultura-ondasunak Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan eta Oinarrizko Babesa duten Kultura Ondasunen EAEko Erregistroan inskribatzea.

1.- Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan eta Oinarrizko Babesa duten Kultura Ondasunen EAEko Erregistroan inskribatutako ondasunek kode bana jasoko dute, identifikatu ahal izateko.

2. Bi erregistroek honako hauen fede emango dute: bertan jasotako datuena, bertan inskribatuta dauden ondasunen identifikazioari eta kokapenari eragiten dieten jarduketena, eta erregistroen gainean egiten diren egintzena.

3. Erregistro horietan inskribatuta dauden ondasunen titularrek jakinaren gainean jarriko dute Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen saila, baldin edozein esku-hartze edo lekualdatze gertatzen bada edo beren ondasunei eragiten dieten egintza juridikoak eta bestelako gorabeherak gertatzen badira.

5. ARTIKULUA

Aldatu egiten da Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 29. artikuluan 2. puntua, eta honela geratzen da idatzita:

29. artikulua.- Ondasunak kontserbatzeko betebeharra.

ARTÍCULO 4.-

Se modifica el artículo 25 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, con la siguiente redacción:

Artículo 25. Inscripción de los bienes culturales en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco y en el Registro de la CAPV de Bienes Culturales de Protección Básica.

1.- Cada uno de los bienes inscritos en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco y en el Registro de la CAPV de Bienes Culturales de Protección Básica recibirá un código para su identificación.


2. Ambos registros darán fe de los datos en ellos consignados, de las actuaciones que afecten a la identificación y localización de los bienes en estos inscritos, y de los actos que se realicen sobre ellos.


3. Los titulares de bienes inscritos en estos registros comunicarán al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de patrimonio cultural cualquier intervención o traslado, así como todos los actos jurídicos y las circunstancias que puedan afectar a dicho bien para su anotación.

ARTÍCULO 5.-

Se modifica el punto 2º del artículo 29 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, con la siguiente redacción:

Artículo 29.- Deber de conservación





2. Titularrek ez badituzte betetzen Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan eta Oinarrizko Babeseko Ondasunen EAEko Erregistroan inskribatutako kultura-ondasunak kontserbatzeko betebeharrak, foru-aldundiek eta udalek, ofizioz edo Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen arloko eskumena duen sailak eskatuta, honako hauek agindu ahal izango dituzte:

- a) Babestutako kultura-ondasunetan egiten diren edozein motatako obra, lan edo jarduketara berehala etetea, lege honetan xedatutakoa urratuz.
- b) Aplikatu beharreko babes-araubidearekin bateraezina den ondasunaren erabilera etetea.
- c) Ondasun hori galtzea saihesteko beharrezkoak diren neurriak betearaztea edo eragindako kalteak konpontzeko.

6. ARTIKULUA

Aldatu egiten da Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 45. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

45. artikulua.- Oinarrizko babesaren duten kultura-ondasunen araubidea.

1. Oinarrizko babesaren duten kultura-ondasunen elementu babestuei aplikatuko zaizkie zaharberritze zientifikorako edo zaharberritze kontserbatzaileko irizpideak, hiritartu eta eraikitako ondarea birgaitzeko iharduera babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan aurreikusitakoak.

2. En caso de incumplimiento por parte de las personas titulares de los deberes de conservación de los bienes culturales inscritos en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco y en el Registro de la CAPV de Bienes de Protección Básica, las diputaciones forales y los ayuntamientos, de oficio o a instancia del departamento del Gobierno Vasco competente en materia de patrimonio cultural, podrán ordenar:


- a) La inmediata suspensión de cuantas obras, trabajos o actuaciones de cualquier tipo que se llevan a cabo sobre bienes culturales protegidos, contraviniendo lo dispuesto en esta ley.
- b) La suspensión de un uso del bien incompatible con el régimen de protección que le sea de aplicación.
- c) La ejecución de las medidas que resulten precisas para evitar la pérdida del bien en cuestión o para revertir los daños ocasionados sobre el mismo.


ARTÍCULO 6.-

Se modifica el artículo 45 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, con la siguiente redacción:

Artículo 45.- Régimen de los bienes culturales de protección básica

1. A los elementos protegidos de los bienes culturales de protección básica les resultan de aplicación los criterios de restauración científica o de restauración conservadora previstos en el Decreto 317/2002, de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado.





2. Higiezinako elementuak ezin izango dira eraitsi, ez osorik, ez zati batean, baldin eta elementu horien kultura-balioek oinarrizko babesa duten kultura-ondasun gisa udal hirigintza-plangintzaren katalogoan badaude.

7. ARTIKULUA

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 50. artikuluari 4. puntua gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

50. artikulua.— Kultura-ondasunen balioei ikusizko kutsadura edo kutsadura akustikoa eragiten dieten elementuen instalazioak debekatzea.

4. Oinarrizko babesa, babes ertaina eta berezia duten kultura-intereseko ondasunetan energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuneko sistemak instalatzeko, ondare-inpaktua ebaluatzeko azterlanak egin beharko dira, organo eskudunak zehaztutako irizpide tekniko eta estetikoari jarraituz. Nolanahi ere, afekzio minimoaren eta itzulgarritasunaren irizpideak jarraituko dira, horiek kentzeak materialei eta babestutako ondasunari oro har ez eragiteko.

Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen arloko eskumena duen sailak bi urteko epean onartuko ditu EAeko ondare-inpaktua ebaluatzeko azterlanak erregulatzeko arauak.

2. En ningún caso podrán ser objeto de derribo total o parcial los elementos del inmueble cuyos valores culturales hayan determinado su inclusión en el catálogo del planeamiento urbanístico municipal como bienes culturales de protección básica.


ARTÍCULO 7.-

Se adiciona un punto 4º al artículo 50 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, con la siguiente redacción:

Artículo 50.— Prohibición de instalación de elementos que originen contaminación visual o acústica sobre los bienes culturales.

4. La instalación de energías renovables y sistemas de eficiencia energética en Bienes de Interés Cultural de Protección Básica, Media y Especial requerirá de estudios de evaluación de impacto patrimonial, siguiendo los criterios técnicos y estéticos determinados por el órgano competente. En todo caso, se seguirán criterios de mínima afección y de reversibilidad, de modo que su remoción no afecte los materiales ni el bien protegido en su conjunto.

El departamento de Gobierno Vasco competente en materia de patrimonio cultural aprobará en el plazo de dos años las normas reguladoras de los Estudios de Evaluación de Impacto Patrimonial en la CAPV.






8. ARTIKULUA

Xedapen iragankor berri bat gehitzen zaio Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeari, eta honela geratzen da idatzita:

Xedapen iragankorra

1. Lege honetan oinarritzko babes-arabidea arautzen duten aurreikuspenak hirigintza-plan eta udal-katalogo berrietan aplikatuko dira. Gainerako plan eta katalogoek indarrean jarraituko dute horietan ezarritako baldintzetan, eta sei urteko epean egokitu beharko dira arabide honetara.

2. Epe horretan, halaber, udalek foru-aldundiei eta Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen arloko eskumena duen sailari jakinarazi beharko die "6/2019 Legearen ondorioetarako, oinarritzko babes-a duten kultura-ondasunak" izeneko babes-maila espezifikoaren barruan udaleko hirigintza-plangintzaren katalogoan sartutako higiezin zerranda.



EA-NV.


ARTÍCULO 8.-

Se adiciona una nueva Disposición Transitoria a la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, con la siguiente redacción:

Disposición Transitoria

1. Las previsiones reguladoras del régimen de protección básica recogidas en esta ley se aplicarán en los nuevos planes urbanísticos y catálogos municipales. Los restantes planes y catálogos se mantienen vigentes en los términos establecidos en ellos y deberán adaptarse al citado régimen en el plazo de seis años.

2. En dicho plazo, los ayuntamientos deberán igualmente comunicar a las diputaciones forales y al departamento competente en materia de patrimonio cultural del Gobierno Vasco la relación de inmuebles incluidos en el respectivo catálogo del planeamiento urbanístico municipal dentro del nivel específico de protección denominado "bienes culturales de protección básica a los efectos de la Ley 6/2019".



SU-ES

